

2010-07-10

Hoberenaren paradoxa

Kritika

Artea

Ertibil Bizkaia.

Non: Rekalde Aretoa (Bilbo). **Noiz arte:** abuztuaren 29ra arte.

Haizea Barcenilla

Rekalde aretoak Ertibilen azken lehiaketa du ikusgai uda honetan. Lehiaketaren oinarriak ez dira zailak, ez aldagarriak: aurkeztutako en artean lehen hautaketa bat egiten da, eta lan hautatuak daude erakusketan ikusgai; horien artean, hiru sari aukeratzen ditu epaimahaiak.

Antolakuntzan, oraino Ertibil ez da aurrekoetatik aldendu, baina bestelako desberdintasunak ageri ditu, Rekalde aretoaren egoera berriarekin zuzenean lotutakoak zenbait, hain zuzen. Hasteko, aurrekoetan, Kabinete Abstraktuko espaziora murriztu ohi zen erakusketa; maiz, hemeretzigarren mendeko akademiako erakusketaren pilaketa gogorazteraino. Aurten, aldiz, espazio osoa hartu du: hots, inoiz baino zabalago eta entitate zehatzagoarekin aurkeztu da. Aurreko Kabinete Abstraktuko egoitzak, aretoaren programazio zuzenduaren barnean lekutxo bat hartu behar izatean hartzen zuten zentzua: beste erakusketa handi eta koherenteagoen artean, espazio txiki bat zen Ertibil. Azken finean, Rekalde aretoak bizitza propio bat zuen, eta horren barreneko etenaldi anekdotiko bat besterik ez zekarren Ertibilek.

Beraz, momentuko Ertibilen nagusitasuna ez zaio sariaren berbalorazio bati atxiki behar, baizik eta Rekalde aretoak egun duen ahultasun larriari. Orain urte bat, hain zuzen, Ertibileko epaimahai baten inguruko eztabaida politikoak zirela-eta, Aldundiak Pilar Mur eta Leire Bergarari atera zuzentzen zuten bidea erakutsi zienetik, Rekaldek ez ditu bere momentu hoberenak. Zuzendaritza berria ote, edo krisiak eragiten duen aurrekontu mozketak latza ote, argi dago aurreko urteetan logikaz eta linea zehatz bati jarraituz sortutako programazioa (zegozkion kritikak onartuz ere) bukatutzat eman dezakegula, eta hori espazioak penintsulako zein Europa osoko arte panoraman betetzen zuten leku bereziaren kalterako besterik ezin da izan.

Beste aldaketak, berriz, aukeratutako arte lanekin du lotura. Bitxia da «oraino artearen erakusgarri» izatearen anbizioa duen sari batek urtero hain aurpegi desberdinak hartzea. Hori bereziki argia da aurtengo eta iazko emanaldiak alderatuz gero. Zuhar Iruretagoiena eta Jon Otamendiren lanak gogoratzen dituztenek ulertuko dute aurreko urtean Bilboko Arte Ederretako tradizio eskultorikoaren presentzia azpimarratzen badugu. Aurten, aldiz, beste diziplina batzuek hartu dute lehentasuna. Lehen sariaren irabazleak, Itziar Barriok, mihise gaineko koloreen formaltasunarekin jolasten du, eta forma zein kolore horiek oihalen gainean sortzen duten efektuetara zabaltzen du bere ikerketa. Bigarren saria, iaz ere aukeratua izan zen Nadia Barkateri emandakoa, marrazkiaren formatua baieztatzen du. Izan ere, benetan dira erakargarriak Barkatek hondo gorri baten gainean aurkezten dituen lanak, beste zenbaitetan ikusi izan dizkiogun hondo neutroekin aldentuz efektu kromatiko indartsua sortzen dutenak.

Beraz, marrazkiak eta pinturak beste zenbaitetan baino itzal handiagoa dute aurten: horrela baieztatzen dute David de las Herasen memoria historikoari buruzko lan ederra, k Damaris Pan, Jenni Alvarado, Iranzu Antona eta Raquel Felezen margoek, bai eta Mariñe Perezen lanak eta Silvia Ocejoren hiru marrazki elegante, simple eta azpimarragarriek. Materialtasun eta izaera kromatiko ezberdinak barneratzen dituzten eskulturak, adibidez, artista aukeratu gazteenen eskutik datoz:

Marta Lopezen eta Oier Iruretagoienaren eskutik. Lopezen lanak kontraesan indartsua sorrarazten du: oinarritzko material sinple eta gordinak erabiliz, eta horiek elkarretaratuz sortzen dira lerdentasun handiko bi piezak, kolore apurrez hauskorragoak bihurtzen direnak, eta proportzioen jokoari ekiten diotenaren itxura hartzen dutenak: badirudi behar baino txikiagoak direla, eskuragarriagoak. Zenbait ildo komun dauden arren, aurreko urteko eskulturretatik arras aldentzen dira pieza hauek.

Bideoak eta argazkiak, aldiz, ez dute oraingo deialdian espazio handia hartu. Pette Etxebarriaren lanak, alde horretatik, eskulturaren formalismoa, mugitzen den irudiaren ezaugarriak eta umore apurra elkartzen dituela dirudi, bideo oso interesgarri batean. Bi ardatz oso desberdinetan agertzen da argazkia: hirugarren saria eraman duen Bego Antonen kasuan, erretratua eta tradizioa elkartzen dira, indar handiko irudietan; Izaskun Alvarez Gainzak, aldiz, hurbilketa formal bat egiten dio teknikari, margoaren ezaugarrietarantz murgiltzen diren esperimenez bidez, berriz ere pinturaren presentzia deiaraziz, nolabait; eta Oihana Vicentek ere medioaren izaeran bertan jartzen du bere arreta.

Aurtengo lehiaketak gure inguruan egiten den artearen ikuspegi nahiko desberdina eskaini digu eta izen berriak ekarri dizkigun; epaimahaiek horrelako sarietan betetzen duten paper aldagarriaren gaineko gogoeta ere eragiten du, ordea. Nola baloratzen da batzuk besteak baino «hobeak» izatearen printzipioa? Lehiak, eta balio konparatiboetan epaitu beharrak, benetako ekarpenik egiten al dio gure kulturaren munduari?

El trabajo da lugar a una fuerte contradicción: utilizando una materia prima simple y básica, uniéndolas, se crean dos piezas esbeltas (de gran esbelitud, sería literal, pero no sé si existe), que con pocos colores (o con poco color) se vuelven frágiles, que comienzan a tomar forma siguiendo el juego de las proporciones. Parecen ser menores de lo esperado, más accesibles. Aunque algunas líneas son comunes, están lejos (se difieren bastante) de las esculturas del año anterior.